

BALOREZKO PROPOSAMENA

Etiket kanpo jatean zure janaria bero mantentzea ahalbidetzen dizu ontzi honek. Hauen bidez, bateria kargatuta badugu, janaria momentuan berotu dezakegu edozein lekutan zaudela. Bateria kargatzea oso erraza da ez duelako entxufe berezirik behar, hau da, entxufe dagoen edozein lekutan kargatu dezakegu.

Nahiz eta janaria epel mantentzen duten ontziak egon, gureak bateria du eta honen bidez, epel mantendu ez ezik, berotu ere egingo du. Aurrez berotu gabe, momentuan berotu daiteke janaria ontzia kargatuta badago. Gure produktuak diseinu eta forma desberdinak edukiko dituzte jakiei hobetoen egokitzen zaien ontzia aukera dezazun. Materialari dagokionez, kristal edo metalez eginak izango dira, horregatik, plastikozko ontziek baino kalitate hobea izango dute.



LEHIAKIDEENGATIK BEREIZTEN GAITUENA

BERRITASUNA

Oraingo merkatuan ez dago bateridun ontzirik. Janaria bero edo hotz mantentzen duten ontzi asko daude, baina gure ontziek bakarrik berotzen dute jana momentuan.

PERTSONALIZAZIOA

Gure ontzien diseinua bezero bakoitzaren beharretara egokitzen da. Bezeroa gurekin harremanetan jarritz gero, bere ontzia pertsonalizatzeko aukera izango du.

LANA ERRAZTEA

Gure bezeroek nahi dutenean izango dute aukera jana berotzeko; beraz, aurretik ez dute lanik izango jana berotzen. Honen ondorioz, bezero askok ez du lanik izango aurretik jana berotzen.

DISEINUA

Gure produktuak diseinu eta forma desberdinak edukiko dituzte jakiei hobetoen egokitzen zaien ontzia aukera dezaten bezeroek. Hainbat tamainutako ontziak egingo ditugu: txikiak, ertainak, handiak...

ARRISKUEN MURRIZKETA

Materialari dagokionez, kristal edo metalez eginak izango dira, horregatik, plastikozko ontziek baino kalitate hobea izango dute. Janaria ontzi horretan berotu behar denez, garrantzitsua da ontziaren materialek pertsonen osasunean eraginik ez izatea, hau da, plastikoa berotzean sortzen diren hainbat substantzia toxiko ekidingo ditugu; beraz, hainbat osasun arazo sahiestuko ditugu.

ESKURAGARRITASUNA

Oso erraza da gure ontzian eskuratzea. webgunearen bidez, edozein tokitan daudela, oso erraz eskuratu ditzakete gure ontziak. Online erosiz gero, ontziak etxera iritsiko zaizkie bezeroei eta ez dira inora joan beharko hauen bila. Honez gain, etorkizunean denda fisikoetan erosteko aukera izango dute.

ERABILERRAZTASUNA

Gure ontziak aurretik kargatuz gero, edozein momentutan erabili ditzakete bezeroek. Botoi bati eman eta janaria berotzen hasiko da; beraz, erabilerrazak dira gure bateridun ontziak.